

# Euskaltzalez blai, Leintz bailara

Herenegun milaka eta milaka lagunek bisitatu zuten Aretxabaleta eta Eskoriatza lotu zituen zirkuitua



EGURALDIK LAGUNDU ez arren, jendez gainezka egon zen goizean goizetik zirkuitua; ibilbidearen zinta Alberto Iñurrategik eta Antonio Altunak moztu zuten. MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

## eh05 nazioeztabaida2005

### Urriaren 8an, ZARAUTZEN 13:30an SAN PELAIO GUNEAN

16:00 AZOKA + LUDOTEKA + ZINEMA +  
TAILLERRAK + AURKEZPENAK + ANIMAZIOA  
ETA MUSIKA

# 13:30 hasiera ekitaldia

# 14:00 herri bazkaria



**nazio**  
GARAPENERAKO  
BILTZARRA

Bazkarirako  
tiketak  
eskuratzen:  
943 26 08 55

#### ERREDAKZIOA - DONOSTIA

Eguraldi txarrak ez zuten zapuztu Gipuzkoako ikastolen egun handiarekin bat egiteko milaka eta milaka euskaltzaleren go-go. Igandean zuten hitzordua Leintz bailarako Kilometroak 2005 festan, eta herritarrek ez zuten huts egin. Aretxabaleta eta Eskoriatza lotu zituen zortzi kilometroko zirkuitua euskaltzalez busti zen goizean goizetik. Helburua: Arizmendi ikastola diruz laguntzea.

Plazara! lema ren pean, ibilbidea 09:30ean zabaldu zuten. Zinta moztearen ardura Alberto Iñurrategi mendizaleak eta 1981ean Arrasaten Kilometroak jaia koordinatu zuen Antonio Altuna Txatillo-k izan zuten. Ikastolen aldeko festan euskal alderdi politikoetako, erakundeetako eta euskal kulturako hainbat alorretako kideak ere izan ziren, hala nola: Joxe Joan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako diputatu nagusia; Tontxu Campos Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua eta Miren Azkarate Kultura sailburua. Tontxu Camposek hitza hartu orduko, Euskal Herriak

Bere Eskolako kideek *Eskolak euskaldundu behar du* zioten kartelak zabaldu zituzten, «herritarrek euskalduntzeko gaur egungo hizkuntz ereduen eraginkortasun eza» gogorarazteko.

Kilometroak festa urte haue tan guztietan ikastolen eta euskararen alde lan egin duten bailarako kideak omentzeko baliatu nahi izan zuen Arizmendi ikastolak, eta ekitaldi goxoa egin zuten Almen gunean. Egun osoan festara bildutako herritarrek ez zuten aspertzeko tarterik izan, zirkuituan zehar prestatutako zortzi guneetan ekitaldi ugari izan baitziren. Aurreikusitako ekitaldi guztiak egin ziren, nahiz eta eguraldi txarrak aldaketa batzuk eragin: kanpoan iragarritako batzuk aterpean egin behar izan ziren.

Antolatzaileek oso balorazio positiboa egin arren, eguraldi txarrak parte-hartzaileen kopuruan izandako eragina kontuan hartuta, bi kontu korronte zabaldu dituzte Arizmendi ikastolari laguntza emateko: 2101 0381 02 0011473931 (Kutxa) eta 3035 0002 0020042125 (Euskadiko Kutxa).



'BERRIA'-K PUZGARRIAK jarri zituen ibilbidean zehar. MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS